

## JESUS ETA IKASLE ARRANTZALEAK

1

Halako baten Jesus joan zan  
 ohi eban bakardadera,  
 Aitatzorekin egon beharra  
 otoitzean asetzera.  
 Apostoluak joanak ziran  
 arrantzurako lanera,  
 batera eta bestera.  
 Goizaldia zan, hirurak-edo  
 norbait etorren aurrera,  
 isilik eta laino artean  
 oinez iblten gainera.

2

Batek oihua: "Ene, mamua,  
 oraintxe galduak gara!"  
 Baina Jesusek urreratuta:  
 "Ez izan bildur ikara,  
 ez naz mamua, zuen Jesus naz,  
 ondo begiratu, hara".  
 Oi, zelango poz zirrada!  
 Urrerago ta ezagunago:  
 "Ene, bai, Jesus Bera da!"  
 Euron artean gehituten doa  
 poz ta zorion algara.

3

Jesusek: "Neu naz" esan orduko  
 Pedrori bihotza ahora:  
 "Zu Zeu bazara, esan eidazu  
 joateko zure ondora".  
 - Zatoz, bai, Pedro" Jaunak esan ta  
 Pedrok zapart itsasora,  
 baina ez dabil gustora.  
 Bidea luze, indarrak urri  
 eta badoa hondora:  
 "O ene Maixu, salbau nagizu,  
 zatoz, jaso naizu gora".

4

"Fede hotzeko gizontxo hori,  
 zergaitik zara zalantza?  
 Zeure indarren uste faltsoak  
 eroan zaitu beherantza".  
 Eta Jesusi eskutik heldu  
 ta igon eban gorantza,  
 Pedrok zelango mudantza!  
 Fedeak berez eskatzen deusku  
 Jesusengan konfidantza;  
 horretarako bere preminan  
 egon behar dogu, antza.

5

Jesus ta Pedro ontziratuta  
 han sortu zan poztasuna!  
 Bildurra bake bihurtu jaken  
 eta argi gau iluna.  
 Aurretik ere, Jesus eurentzat  
 zan nahikoa ezaguna,  
 gaurtik aurrera Laguna.  
 "Benetan Jesus Jainko Seme da,  
 geure begiz dakusguna".  
 Ha bai eguna, mamua Jesus  
 bihurtu jaken eguna!

6

Bizitza bera da itsasoa  
 Jesus hortxe dago beti,  
 batzuentzako bizi ta lagun,  
 baina gehientzat geldi.  
 Eginak egin, esanak esan,  
 ez belarri ta ez begi,  
 mamua dago gehiegi...  
 Argi nahiz ikun, bare nahiz kixkur,  
 Jesus dator eta segi,  
 gurutzea-ta, badator betor,  
 Jesusekin etor bedi.